

AURKEZPENA

Denboran zehar, milaka aurrerapen desberdin izan ditugu gizartean gaur egunera arte. Horietako asko teknologikoak izan dira, eta gure asmoa, pauso bat aurrera joatea da. Garatzen ari garen produktua, eguneroko bizitzan hainbat erreztasun gehiago izateko balioko digu; adibidez, askotan giltza gehiegi izaten ditugu gainean eta normala da hauek noizbaitean galtzea edota konfundituta behar ez dugun bat hartzea. Egoera hori dela eta, txartel hau sortzearen ideia izan dugu; honek, hainbat ate sentsore baten bidez irekitzeko balioko du. Ideia hau, gainean giltza asko izatea eta era berean pisu handia izatea sahiesteko bururatu zitzaigun alde horretatik erosoago egoteko.

Gure taldea "ABC" deitzen da eta Urretxu-Zumarraga ikastolako Startinnova proiektuan parte hartzen ari garen bost gazte gara; Ander Arenas, Ander Vega, Eider Barrasa, Khadija Ghobra eta Salma Khaldoun. Gure produktuaren izena "Txartel" da eta gure asmoa jendearen eguneroko bizitza modu eroso batean erraztea da.

